

## **ERABAKIA, 2024ko OTSAILAREN 29koa, EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, ERASMUS+ NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMAN 2024ko ABUZTUTIK ABENDURA BITARTEKO PROGRAMA TRINKO KONBINATUEN DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEKOA**

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearen deialdi honek ezartzen ditu Erasmus+ programan programa trinko konbinatuetako (BIPs ingelesez) mugikortasun laburrak burutzeko baldintzak eta dirulaguntzak banatzeko modua, aintzat harturik Europako Batzordeak Hezkuntza Nazioartekotzeko Zerbitzu Espainiarraren bidez (SEPIE) emandako jarraibideak.

Kontuan izanik kreditua badagoela, KA131 2024 proiektuari loturiko dirulaguntza kontratuko Europako funtsetatik, eta ditudan eskumenen babesean, hauxe

### **ERABAKI DUT:**

**Lehena:** Onartzea eta argitaratzea Erasmus+ Nazioarteko Mugikortasun Programako 2024ko abuztutik abendura bitarteko BIPen deialdiaren oinarriak.

**Bigarrena:** Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera. Horretaz gain, nahi izanez gero, aukerako berraztertze errekurtoa jar daiteke hilabeteko epean, erabaki hau eman duen organo beraren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 123 eta 124. art.).

### **OINARRIAK**

#### **1. Deialdiaren xedea**

Deialdiaren xedea da laguntza ekonomikoak ematea Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean matrikulatutako ikasleei Erasmus+ programaren barruan BIPetan parte hartzeko.

BIPak mugikortasun labor mota espezifiko bat dira. Zehatzago esanda, ikasteko eta irakasteko metodologia berritzaileak darabiltzaten programa laburrak dira, Europako hiru herrialdeko gutxienez hiru unibertsitatek elkarrekin antolatutak. BIPen, ikasleek 5 eta 30 egun bitarteko mugikortasun fisikoa egiten dute atzerrian,

derrigorrezko osagai birtual batekin konbinatuta. Mugikortasun fisikoa unibertsitate koordinatzaileak aukeratutako lekuan burutzen da. Osagai birtualaren eta mugikortasun fisikoaren arteko konbinazioa 3 ECTS izango da gutxienez.

BIPa egiten duten ikasleek Hezkuntza Nazioartekotzako Espainiako Zerbitzuak (SEPIE) mugikortasun laburretarako zehaztuak dituen Erasmus+ programako laguntzak jaso ahal izango dituzte.

Parte hartzeko eskaera egin daitekeen BIP bakoitzari buruzko informazioa eta bakoitzaren eskaera data **deialdi honen amaierako 1. ERANSKINEAN** jasota dago.

## 2. Parte hartzeko baldintzak

### 2.1. Ikasleek bete beharreko baldintzak

Norentzat: BIP bakoitzeko deskribapenean zehazten diren titulazio edo ikastegietako ikasleentzat (1. eranskina).

2.1.1. **Eskaera egiten duenean** ikaslea UPV/EHUn matrikulatuta egon beharko da. Mugikortasuna egiten duen ikasturtean ere UPV/EHUn matrikulatuta egon beharko da.

2.1.2. Ikasleak **behar den hizkuntza maila duela** egiaztatu beharko du. BIP bakoitzeko eranskinean zehaztuko da hori zein den.

2.1.3. Ikasleak Europako Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izan beharko du, edo bizi den herrialdean izan beharko da errefuxiatua, herrigabea, egoiliar iraunkorra edo aldi baterako egoiliarra (mugikortasunak dirauen artean bizileku baimena duena), kasuan kasuko estatuko legediaren arabera halakotzat aitortua.

UPV/EHUko nazioarteko mugikortasunari buruzko araudiaren arabera, kanpotik datozen ikasleek ezingo dute deialdi honetan parte hartu, horrelako ikasletzat hartuta aipatutako araudiaren 3.9 eta 8.4 artikuluetan definitutakoak.

2.1.4. Ezin izango dute parte hartu honako ikasle hauek:

- i. BIParen iraunaldian lehenengo mailan daudenek;
- ii. Ikasturte berean beste mugikortasun bat egiten dutenek;
- iii. aurreko deialdietan mugikortasun programetako arauak ez betetzeagatik zigorra izan dutenek.

### 2.2. Aurreikusitako jarduera

2.2.1. BIPek **5-30 eguneko egonaldi fisiko bat** eta **osagai birtual bat** konbinatzen dituzte atzerriko unibertsitate batean. Osagai birtualaren eta mugikortasun fisikoaren konbinazioak 3 ECTS izango ditu gutxienez.

2.2.2. Erasmus+ programak 12 hilabeteko muga ezartzen du Erasmus+ mugikortasun egonaldiako, ikasketa-ziklo bakoitzeko. BIPEko egonaldi fisikoko egunak mugikortasun gisa zenbatuko dira, muga hori errespetatzeko.

### 2.3. Iraupena, egonaldia eta helmugak

BIParen iraupen osoa eta mugikortasun fisikoa BIP bakoitzaren deskribapenean adierazitako datetan eta helmugan egingo dira (1. eranskina).

Mugikortasun fisikoak bost (5) egunetik hogeita hamar (30) egunera bitarteko iraupena izango du.

## 3. Aurreikusitako finantzaketa

BIP bat egiteko plaza lortzeak berekin dakar SEPIEk ezarritako dirulaguntza eskuratzea, mugikortasun fisikoko aldirako.

	Laguntza arrunta	Aukera gutxiago dituzten ikasleentzako laguntza
<b>14. egunera arte</b>	79€/eguneko	100€ gehiago mugikortasun osorako
<b>15. egunetik 30 egunera arte</b>	56€/eguneko	150€ gehiago mugikortasun osorako (ezin zaio aurrekoari gehitu)

Posible da mugikortasunaren hasiera dataren aurretiko bidaiia-egun bat finantzatzea eta mugikortasunaren amaiera dataren ondorengo bidaiia-egun bat finantzatzea bidaiia arruntean.

Gainera, **56 € gehiagoko laguntza** dago bidaiia ekologikoa egiten duten ikasleentzat. [Baldintzak](#) betetzen dituen bidaiia eginez gero, hasierako dataren aurretiko **3 bidaiia-egun** finantza daitezke gehienez, eta amaiera dataren ondorengo **3 bidaiia-egun** gehienez.

### Bidaiarako Laguntza aukera gutxiago dituzten ikasleentzat

Aukera gutxiago dituzten ikasleak honakoak dira:

- a) Estatuko Administrazio Orokorren izaera orokorreko ikasketa-beka baten onuradun izatea, unibertsitate-ikasketak egiteko, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren beka baten onuradun izatea mugikortasuna egingo den ikasturtearen aurre-aurreko ikasturtean edo oraingo ikasturtean.
- b) **Errefuxiatua** izatea edo **babes subsidiariorako eskubidea** izatea, edo Espainian **nazioarteko babeserako eskaera** aurkeztu izana.

- c) Kategoria bereziko familia ugaria
- d) Terrorismoaren biktimak eta senideak
- e) Legez % 33ko edo gehiagoko **desgaitasuna** aitortuta eta kalifikatuta izatea.
- f) Genero-indarkeriaren biktimak
- g) Autismoaren espektroko nahasmenduaren diagnostiko ziurtatuak
- h) Hiperaktibitate-dun arreta fatlagatiko nahasmenduaren diagnostiko ziurtatuak (AGNH/GNH)

Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak ofizioz egiaztatuko du eskatzaileen egoera, eskabideak zuzentzeko azken egunaren ondorengo lehen egun baliodunean. (a) - (e) egoerentarako, UPV/EHU n matrícula egiteko unean duten egoeraren berri eman behar dute eskatzaileek. (f) - (h) egoerentarako, eskatzaileek UPV/EHUko Desgaitasun Zerbitzuarekin erregistratuta egon behar dute ([discap@ehu.eus](mailto:discap@ehu.eus)). Nolanahi ere, egiaztapena arintzeko, eskatzaileek dagokien akreditazioa aurkez dezakete eskabidearekin batera.

Aukera gutxiago dituzten ikasleek bidaiarako laguntza gehigarria jasoko dute:

Distantziak	Bidaia arrunta	Bidaia ekologikoa
10 eta 99 km artean	23€	-
100 eta 499 km artean	180€	210€
500 eta 1999 km artean	275€	320€
2000 eta 2999 km artean	360€	410€
3000 eta 3999 km artean	530€	610€

Bidaien distantziak kalkulatzeko, Europako Batzordeak proposatutako distantzia-kalkulagailua erabili behar da ([http://ec.europa.eu/programmes/erasmus-plus/tools/distance\\_en.htm](http://ec.europa.eu/programmes/erasmus-plus/tools/distance_en.htm)). Ibilbidearen distantzia noranzko bakarrean adierazi behar da, joan-etorria barne hartuko duen laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko. Laguntza hau ez da bateragarria bidaia ekologikorako 56€-ko laguntzarekin.

## 4. Eskaera egiteko modua

### 4.1. Eskaera eta nahitaezko dokumentazioa

Eskaera bakoitza eredu normalizatuan bete beharko da (2. eranskina). Gehienez bost BIP eska daitezke, lehentasun-hurrenkera bat adierazita.

Eskatzaile bakoitzak eskabide bat aurkez dezake gehienez (2. eranskina), eskabide-aldi bakoitzeko (ikus 1. eranskina). Eskaera-aldi berean eskabide bat baino gehiago aurkezten badira, azkena bakarrik hartuko da kontuan, eta erregistro-zenbakia erabiliko da identifikazio-irizpide gisa.

Osatu gabeko eskabideak ez dira kontuan hartuko zuzenketa-aldiaren ondoren.

Nahitaezko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Eskeraren inprimakia, eskatzaileak eta bere mugikortasun koordinatzaileak behar bezala beteta eta sinatuta (2. eranskina)
2. Indarrean dagoen NANaren edo AIZaren fotokopia. Europako Batasuneko beste estatu bateko herritarrek edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan dagoen estatu batekoek pasaporte edo beren herrian parekoa den identifikazio dokumentua aurkeztu beharko dute, titularraren nazionalitatea agertzen duena. Gainerako herrialdeetako herritarrek atzeritarren identifikazio zenbakia (AIZA) aurkeztu beharko dute.
3. Interesdunak dirulaguntza jaso nahi duen libreta edo kontu korrontearen xehetasunen kopia (**IBANa BARNE**). Titularraren izena kopian agertu behar da, eta kontua Espainiako banku batena izan behar da. Eskatzailea libretaren edo kontu korrontearen jabea izan beharko da nahitaez.
4. Hizkuntza-maila egiaztatzen duten ziurtagiri ofizialen kopiak.
5. Aukera gutxiagoko egoera egiaztatzen duen ziurtagiriaren kopia, alde aurretik UPV/EHUri aurkeztu ez bazaio.
6. UPV/EHUko Buddy programan parte hartu izanaren ziurtagiriaren kopia, **hala badagokio**.

#### 4.2. Eskerak aurkezteko epea eta modua

Eskerak egiteko epeak 1. Eranskinen BIP bakoitzaren fitxan agertzen dira. 1. Eranskinari BIP berrien fitxak gehitu dakizkioke, bakoitzaren eskaera datekin, Ebazpen hau argitaratu ondoren.

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua arabera, aurkeztu beharko dira: Ahal dela, UPV/EHUn erregistro elektronikoa, <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico> URL helbidean, eskaeraren "Hartzailea" eremuan hautatuz: **Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza** □ **Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa (U02000247)**. Horretarako erabiliko da identifikazio elektronikoko sistemaren bat: a) Izenperen Erabiltzaile Ziurtagiri Digitala, b) UPV/EHUn Unibertsitate Txartela (Izenpe), c) NAN elektronikoa edo d) Diruaren eta Zerga Ziguaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).
- Gainera, eskaera aurkeztu ahal izango da: a) sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa, b) UPV/EHUko edo sektore publikoko beste edozein erakundetako erregistro arloko laguntza bulegoetan, gaitutako funtzionario publiko baten bidez, c) Correoseko bulegoetan (gutun zihurtatu lehenengo orria posta bulegotik sinatuta), eta d) Espainiak atzerrian dituen ordezkari diplomatikoetan edo kontsuletxeetako bulegoetan.

UPV/EHUko erregistro arloko bulegoetan aurrez aurre aurkeztutako eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira, espediente administratibo elektronikoan sartzeko, eta originalak itzuliko zaizkio interesdunari, hark bere burua funtzionarioaren aurrean identifikatu eta egintza horretarako berariazko baimena eman ondoren, aintzat harturik UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko erabakia, zeinaren bidez onartzen baita erregistro arloko laguntza bulegoei, UPV/EHUUn gaitutako funtzionario publiko baten bidez eskabideak, idazkiak edo bestelako komunikazioak aurkezteari eta gaitutako funtzionario publikoen erregistroari buruzko jarraibidea.

Eskaera posta bulegoren bidez aurkeztuz gero, helbide honetara joko da:

Erasmus+ BIP deialdia  
Bizkaiko Campuseko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa  
Biblioteka eraikina 2 - Sarriena auzoa z/g  
48940 Leioa (Bizkaia)

#### 4.3. Eskaerak zuzentzea eta hobetzea

Eskaerak ez baditu betetzen 39/2015 Legearen 66. artikuluko baldintzak eta, hala badagokio, 67. artikulukoak, edota aplikagarria den legedi espezifikoan ezarritako beste batzuk, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari hutsak zuzendu edo falta diren dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, dagokion erabakia eman ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako moduan.

Akatsak zuzentzeko eskatzen zaien pertsonen **4.2 oinarrian ezarritako bitartekoen bidez aurkeztuko dute eskatutako dokumentazioa.**

### 5. Hautapen prozedura

#### 5.1. Hautapen baldintzak

Batzorde batek aztertuko ditu eskaerak, eta batzorde horretako kideak izango dira: Nazioarteko Mugikortasunerako Zuzendaria, Nazioarteko Harremanetarako Zerbitzuko burua eta batzordearen idazkari lanak egingo dituen teknikari bat (hitza izango du, baina botorik ez).

- Nazioarteko mugikortasun programetan inoiz parte hartu ez duten ikasleek izango dute lehentasuna.

Lehentasun hori aintzat hartuta, hautaketa irizpidea **merezimendu akademikoan** oinarrituko da, eta, horretarako, kontuan hartuko da eskatzaile bakoitzaren batez besteko nota bere ikastegiko gainerako parte hartzaileen notarekin alderatuta.



Berdinketa gertatuz gero, balorazio irizpideak erabiliko dira:

1. Lehentasuna izango dute mugikortasuna eskatzen den ikasketetan kreditu kopuru handiagoa duten eskaerek.
2. Berdinketak jarraitzen badu, aukera gutxiago dituzten eskatzaileek izango dute lehentasuna.
3. Berdinketak jarraitzen badu, plaza izango da [Buddy programan](#) parte hartu duen eskatzailearentzat.
4. Berdinketak jarraitzen badu, plaza izango da eskaeraren aurreko ikasturtean batez besteko nota handiago izan duenarentzat.

Norbaitek eskaera egingo balu deialdi honetan eskainitako BIP batean baino gehiagotan parte hartzeko, gehienez plaza bakarra esleituko zaio eta Batzordeak esleituko du, eskatutako BIP guztietako plazen eskuragarritasunaren eta banaketaren arabera.

## 5.2. Erabakiak

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak, aintzat harturik batzordeak eginiko hautapena, Nazioarteko Harremanen web orrian argitaratzeko aginduko du onartutako mugikortasunen zerrenda, atzera botatakoena eta erreserban gelditu direnena.

Deialdi honetan aurreikusitako mugikortasunak emateko edo ukatzeko erabakiaren aurka, dagozkion errekurtsioak jarri ahal izango dira, indarrean dagoen legediaren arabera.

Erasmus+ programak eskatzen du BIPek gutxieneko parte-hartzaile kopurua izan dezatela. Honenbestez, parte-hartzaile kopurua nahikoa izango ez balitz, salbuespen gisa, eta behin-betiko ebazpena eman ondoren, Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak parte-hartzaileak proposatu ahal izango ditu.

## 5.3. Onartzea edo uko egitea eta erreserba zerrenda

Behin plaza esleituta, 10 egun baliioduneko epea emango zaio interesdunari mugikortasuna **onartzeko edo hari uko egiteko** formularioa aurkeztuz (3. eranskina), **4.2. oinarrian ezarritako bitartekoen bidez**.

Plaza lortu ez duten pertsonen erreserba zerrenda argitaratu egingo da Nazioarteko Harremanen webgunean, eta uko egiteren bat gertatuko balitz, mezu elektronikoko bat bidaliko zaie, aintzat harturik zerrenda horretako hurrenkera.

## 6. Parte hartzeko konpromisoak

Deialdian hautatutako pertsonak parte-hartzeko konpromiso hauek hartuko dituzte:

### 6.1. Egonaldiaren aurretik

Egonaldia hasi baino 15 egun lehenago gutxienez, **5. eranskinean** jasotako urratsak bete beharko dituzte:

1. Hiru alderdiek sinatutako akordio akademikoa (4. Eranskina)
2. Bidaia aseguruak kontratatu izanaren ziurtagiria, estalduren deskribapenarekin, eta ordainketarenarekin.
3. Joan-etorriko bidaia-txartelak, bidaia ekologikoa zein arrunta izan. Dokumentu horiek beharrezkoak dira bidaia-egunen finantzaketa justifikatzeko.
4. OLS hizkuntza probaren egiaztagiria
5. Irakaskuntza helburuak dituen Mugikortasuna Diruz laguntzeko Hitzarmena

Mugikortasunean parte hartuko duen pertsonak bidaiako laguntza aseguruak izango du, eta haren estalduren artean egongo dira gaixotasunagatiko (COVID-19a barne) edo istripuagatiko asistentzia medikoa eta farmazeutikoa, aberriratzea eta osasun lekualdaketa.

Bidaia aseguruak kontratatzea nahitaezkoa da Erasmus+ programan, eta ezinbestekoa laguntza ekonomikoa jasotzeko. UPV/EHUK [IBILI-EHU](#) aseguruak eskaintzen du. Ez da diruz lagunduko aseguruak gabe, OLS hizkuntza ziurtagiririk gabe eta hitzarmen akademikorik gabe eginiko mugikortasunik, ezta irten aurretik sinatutako Dirulaguntza Hitzarmenik ez duen mugikortasunik ere.

1 – 3 dokumentuak entregatuta, Nazioarteko Harremanen Bulegoak Dirulaguntza Hitzarmena (5) emango die parte-hartzaileei, eta hitzarmena osatzen lagunduko die.

### 6.2. Egonaldiaren ondoren

Kitapena egiteko, agiri hauek aurkeztu beharko dira egonaldia amaitu eta hilabeteko epean:

1. Egonaldiaren amaiera ziurtagiria, UPV/EHUren formatuan edo informazio bera jasoko duen harrera erakundearen beste formatu batean. Benetako jarduera egunak adieraziko dira. Ziurtagiria originala izango da eta ez du izango ez zirriborrorik ez zuzenketarik, eta harrera erakundearen dagokion unitatearen zuzendaritzaren sinadura eta zigilua izango ditu.
2. Erasmus+ ikaslearen amaierako txostena. Online egingo da, txostena egiteko gonbidapena jaso eta hurrengo 30 egun naturaletan. Txosten hori egin ezean, dirulaguntza itzultzeko eskatu ahal izango du Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak.



## 7. Dirulaguntza ordaintzea

Bi (2) zatitan ordainduko da:

1. Lehen ordainketan, laguntzaren % 70 jasoko da, eta
2. Bigarreanean, jarduera burutu ondoren kitapenari dagokion zatia.

Bi ordainketen izapideak hasteko, ezinbestekoa izango da dokumentazioa 5. eranskinean jasotako kontaktuei bidaltzea.

## 8. Uko egitea

Adjudikatu den plaza bati uko egitea formalizatu egin beharko da 4.2 oinarrian ezarritako bitartekoen bidez (3. Eranskina).

## 9. Ez-betetzeak eta itzulketak

Deialdiaren oinarriak edo epeak betetzen ez badira, edo datuak ezkutatu, aldatu edo manipulatu badira, ukatu, eten edo baliogabetu ahal izango da emandako dirulaguntza, eta jasotako kopuruak itzuli beharko dira.

Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu guztiak eska diezazkieke laguntza lortu duten pertsoneri eta harrera unibertsitatei, mugikortasunak deialdiaren helburuak bete dituela egiaztatzeko.

Egonalditik behar baino lehen itzuliz gero, horren berri eman eta arrazoia azaldu beharko da. Errektoreordetzak uko egiteek oinarriak baduten aztertuko du.

Hori horrela, honako hauek baino ez dira hartuko salbuesteko kausa larritzat: ikaslearen edo haren senideen istripu edo gaixotasun inhabilitatzailea (odol ahaidetasunezko senideak, zuzenean lehen mailara arte edo zeharka bigarren mailara arte), edo legez eraturako bikotekideenak (ezkontza, izatezko bikotea, bizikidetza frogatua edo errektoreordearen iritziz bizikidetza behar bezala adierazten duen beste moduren bat). Egoera horiek frogatzeko, zuzenbidean oinarritutako frogabideak aurkeztu beharko dira. Alegazioak onartzen ez badira, eta zuzenbidean jar daitezkeen errekurtsoei kalterik egin gabe, ikasleak ezin izango du parte hartu nazioarteko mugikortasun programetan hurrengo ikasturtean.

Baldin eta laguntzen onuradunak azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikulua kasuren batean badaude, edo deialdi honetan edota dirulaguntza emateko erabakian ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak, dagokion erabakiaren bidez, galdutzat emango du ordaintzeke dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidea eta, hala badagokio, itzultzeko betebeharrak ezarriko du, alde batera utzi gabe bidezkoak diren gainerako egintzak, bat etorri abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoarekin, zeinaren bidez arautzen den dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta ezartzen diren haien kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Kolaboratzaileen baldintzak, araubidea eta betebeharrak.

Leioa, 2024ko otsailaren 29a.

**Sin. M. Juncal Gutierrez Mangado**

EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO

ERREKTOREORDEA

## Eranskinen zerrenda

- |              |                               |
|--------------|-------------------------------|
| 1. eranskina | Eskainitako BIPen informazioa |
| 2. eranskina | Eskaera inprimakia            |
| 3. eranskina | Onarpen/uko egite inprimakia  |
| 4. eranskina | Hitzarmen akademikoa          |
| 5. eranskina | Laguntza kobratzeko izapideak |